



Mondragon
Unibertsitatea

Enpresagintza Fakultatea
Facultad de Empresariales

myGADE

Gradu DUALA Enpresen
Administrazio eta Zuzendaritzan

OÑATI - BILBO - IRUN

Inoiz ez da hain
zirrargarria
izan EAZ ikastea

Aldi berean, hezkuntza paradigma ere, aldatu egin da. Gaur egun, ez da nahikoa hezitzea eta karrera profesional luzea egitea. Unibertsitatean, gaitasunak eskuratu behar dira, bizitza osoan zehar ikasten lagun diezazuten. Ezagutza teknikoak oso garrantzitsuak dira, baina ez dira nahikoak. Espazioak behar dituzu, zure trebetasun pertsonalak garatzeko, benetako esperientzia profesionalak bizitzeko, eta zure ikaskuntzan inpaktu handia izango duten nazioarteko bizipenak disfrutatzen.

Enpresen kudeaketan eta administrazioan unibertsitate titulu bat aurkitzea erraza da.

**HEZIKETAREN
PARADIGMA ERE,
ALDATU EGIN DA**

myGADEk MERKATUAK GEHIEN ESKATZEN DITUEN ASPEKTUETAN PRESTATZEN ZAITU

Baina benetan ikasteko moduko prestakuntza esperientzia bat bizitzeko aukera emango dizun unibertsitate gradua lortzea, ikaskuntza metodologia berritzaileen bidez, eta merkatuak gehien eskatzen dituen alderdietan prestatzea, beste historia bat da.

Gustatuko litzaizuke ezagutzea nolakoa izango den zure ikaskuntza bidaia myGADEko 4 urteetan?

Hurrengo orrialdeetan azalduko dizugu...

Lau arrazoi myGADeR bihurtzeko:

ActDUAL⁰¹

Lau urte arteko enpresa-esperientzia lortzeko aukera izango duzu. Gainera, kotizatu egingo duzu eta konpentsazio ekonomiko bat jasoko duzu horregatik.

Enpresan eskuratzen dituzun kompetentzia profesional eta pertsonalek balio bereizgarria emango dizute zure profil profesionalan.

GoGLOBAL⁰²

Zuk atzerrira bidaiatzea edo atzerriko egonaldi bat izatea, guretzat ez da nahikoa.

Unibertsitateko ibilbidean garrantzitsuak eta zirrargarriak diren nazioarteko esperientziak bizi ditzazun nahi dugu, begirada orokor batekin trebetasun eta gaitasun pertsonalak eta profesionalak eskuratzeko eta garatzeko aukera emango dizutenak.

Learn**REAL**⁰³ Be**FUTURE**⁰⁴

Metodologia honek lagunduko dizu ikasten, baina benetan ikasten!

Nola? Diziplinarteko moduluen eta enpresen benetako erronken bidez. Hauek lagunduko dizute, ikasitakoa integratzen eta ikasitakoari zentzua ematen.

Jakin nahi duzu nolakoa izango litza-tekeen egun bat myGADEko gelan?

Enpresa guztiek, trebetasun pertsonal jakin batzuk eskatzen dituzte beren lan eskaintzetan: taldean lan egiteko gaitasuna, erabakiak hartzen jakitea, buru analitikoa, erresilientzia, komunikazioa...

myGADEn gaitasun pertsonal hauek hiru testuingurutan garatuko dituzu: enpresan, nazioartean eta campusean.

Act DUAL

Act DUAL

Act DUAL

Act DUAL

Act DUAL



Unibertsitateko prestakuntza DUALerako EU4Dual aliantzako liderrak gara. Proiektuan parte hatzen dute Europako beste zazpi unibertsitatek.



Estatu mailan EAZko gradu bakarra gara, 4 urteko esperientzia duala izateko aukera emango dizuna DUAL+ ibilbidea jarraituz.

Ditugun bi ibilbide DUALetan, unibertsitatea, ez da zure ikasteko espazio bakarra izango, enpresa batean lan egingo baituzu. Gradua amaitzean, 2 edo 4 urteko lan esperientzia izango duzu aukeratutako DUAL ibilbidearen arabera. Ingurune eta proiektu errealetan ibiltzeak, balio erantsia emango dio zure profilari.

DUAL+ ibilbidean zure esperientzia duala intentsitate handiago batekin biziko duzu, lehenengo mailatik laugarren mailararteko ikasketa prozesu bat izanik enpresan. Ibilbide DUALa aukeratzen baduzu zure ikasketa enpresan 3.mailan hasiko da.

Bi kasuetan zure Gradu Amaierako Proiektua enpresan burutuko duzu.

DUAL

Lan esperientzia enpresan
3. mailan hasita

DUAL+

Lan esperientzia enpresan
1. mailan hasita

ActDUAL

Lan

**esperientzia,
gradu bat da !**

Badakigu bertigoa eman diezazukeela enpresa batean sartzeak talde berri batekin, baina ez kezkatu: bi pertsona esleituko dizkizugu, bata enpresan, eta bestea unibertsitatean, salto hori egiten eta bide horretan lagunduko dizutenak.

UNIBERTSITATEKO BIDAIDE

Enpresan integratzeko, pertsonalki eta profesionalki garatzeko eta zure helburu profesionalak lortzeko gaitasunak eta baliabideak garatzen lagunduko dizun pertsona izango da.

ENPRESAKO BIDELAGUNA

Enpresan, zure ikaskuntza errazten duen pertsona izango da, baita zure karrera kurba handitzen duten gaitasun pertsonalak eta pertsonen artekoak garatzen dituen ere.

Ranking-ek estatuan enplegarritasun handieneko graduen artean kokatzen gaituzte.

“Euskadiko lehen enpresa taldeko kide gara.”

“500 enpresa baino gehiagorekin lan egiten dugu.”

“Gure ikasle dualen %100 finantzatuta daude.”

“Hilean sari ekonomiko bat jasoko duzu.”

← 01

myGADE Gradu DUALA Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan →

**%97ko
enplegu
tasa**

ActDUAL

**Zer esaten dute
ActDUAL-ari buruz
enpresek eta
myGADER-ek?**



**Durangotarra, myGADEn
graduatu, Sunset
Hospitality Groupen
lanean, Dubain**

“myGADE amaitu ondoren, nire ibilbidea jarraitzeko aukera izan nuen prestakuntza duala egin nuen enpresan, Eroskin, eta Marketin departamentura pasatu nintzen. Han aurkitu nuen nire benetako grina: beren esentziaz markak garatzea eta sustraietatik hazten laguntzea.

Handik gutxira nazioarteko programa batekin Dubaira etorri nintzen. Han nire ibilbidea enpresa arloan garatzen jarraitzen dut. Duela gutxi, hospitalitate-industriaren aldeko apustua egitea erabaki dut. Sektore horrek ahalmen

handia du eskualdean, eta pertsonetikiko zuzeneko elkarreraginak erakarri nau beti. Marketin departamentutik, Sunset Hospitality Groupek merkaturatutako lehen marketako bi kudeatzen ditut, merkatuan duen posizionamendua eta hazkundea ziurtatuz.

Nire ibilbide profesionalaren funtsa da gazte-gaztetatik murgildu naizela enpresa-munduan, myGADEk emandako aukerari esker.”



**Gernikarra,
myGADEn graduatua,
Bogotako Merkataritza
Ganberan ari da lanean**

NEREA ALONSO

“Lehen ikasturtetik DUAL ereduari parte hartzeko aukera izan nuen Bankinterren, eta han ikasketa handia lortu nuen. Esperientziak aukera eman zidan ikasitakoa hasieratik ingurune erreal batean aplikatzeko.

Hirugarren ikasturtean, nazioarteko esperientzia bat bizi izan nuen Seulen, Hego Korean, International Experience Programen parte gisa. Oso aberasgarria izan zen enpresa- eta kultura-errealitatea ezagutzeko, pertsona eta profesional gisa izan dudako garapenean.

Hiru urte eta erdiko prestakuntza dualari esker, gradua amaitu eta berehala lan-merkatuan sartzea lortu nuen, seguruago eta erronka profesionaleri aurre egiteko prestatuago sentituz. Gainera, nazioarteko esperientziak atzerrian lan egiteko behar nuen konfiantza eman zidan, eta horrek Kolonbiara eraman ninduen. Han urtebete daramat Bogotako Merkataritza Ganberan lanean.”

ActDUAL

Learning companies

Hitzarmenak ditugu enpresekin (learning companies) campus bakoitzean (Oñati, Irun, Bilbo); une honetan 800 ikasle inguru ari dira beren esperientziaz gozaten enpresa dualean edo Gradu Amaierako Lana egiten enpresan campus desberdinetan.

Learning companies Oñati




Learning co



**800 ikasle
enpresa
esperientzian**



myGADE Gradu DUALA Enpresen



Companies Bilbo



Learning companies Irun



Go GLOBAL

Go GLOBAL

Go GLOBAL

Go GLOBAL

Go GLOBAL

Ideiak aldatzeko bidaiatzen dugu, ez tokiz aldatzeko.

Intercampus Challenge:

Zure kultura anitzeko trebetasunak garatuko dituzu, beste kultura batzuetako ikasleekin esperientziak aztertuz eta elkarrekin sortuz, **erronka erreal baten bidez.**

International Experience Program:

Zuk aukeratutako **espezialitate profesionalari lotutako talde-esperientzia** izango duzu: Data Analytics, Marketin Digitala, Nazioartekotzea, Talentua edo Finantzak. Hilabetez kultura anitzeko esperientzia batean murgilduko zara, espezialitatearen arabera: Budapest, Dublin, Mexiko eta India.

Nazioarteko Unibertsitatea eta Gradu Amaierako Proiektua:

Banakako esperientzia izango duzu, **nazioarteko unibertsitate batean** edo **atzerriko enpresa batean**, zure gaitasun pertsonalak eta profesionalak indartzeko eta arriskuak hartzeko gaitasuna duen eta gainditze pertsonala bilatzen duen profil bat garatzeko.

myGADE Gradu DUALA Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan



Learn REAL

Learn REAL


Learn REAL

Learn REAL

Learn REAL

Ikas dezazun nahi dugu, baina benetan ikas dezazun.

Gure proposamena:
Ikasketa eraldatzailea.
Egoera konplexuei
erantzun konplexuak
bilatzen irakatsiko
dizuna.



myGADEk bi arrazoi
nagusirengatik eraldatuko
zaitu:

Ezagutza arloak konektatzen dituzten
3-6 orduko **modulu intentsiboekin
egiten dugu lan**, enpresako
prozesu errealak simulatuz. Esparru
ezberdinetako adituekin lan egingo
duzu. Sinergiak bilatzeko eta diziplina
arteko erronkei aurre egiteko gai izan
zaitez nahi dugu.

Ikaskuntza inkrementala sustatzen
duten metodologiengatik ikasiko du:
**Klase teorikoak, beste dinamika
batzuekin konbinatuko ditugu**, hala
nola, Problem Based Learning, jarduera
esperimentalak, Flipped Classroom,
enpresen benetako erronkak...

Learn REAL

Aste bat myGADEn.

Hurrengo grafikoak, myGADEn astebetaz bizitza nolakoa izango litzatekeen ikusten lagunduko dizu. Gogoratu hori aldatu egin daitekeela campusaren eta zure ikaskuntza ibilbidearen arabera (dual edo dual+).

CAMP

ASTELEHENA ASTEARTEA

18
ORDU

DUAL+ ibilbidea

UNIBERSITATEAN

ASTEAZKENA

OSTEGUNA

OSTIRALA

16
ORDU

ENPRESAN

Learn REAL

Zer ikasiko duzu lau urte hauetan zehar?

Enpresak (ETE bat, start-up bat, multinazional bat eta/edo erakunde bat izan) hainbat etapatatik igaro ohi dira beren bizi-zikloan zehar: jaiotza, hazkundera, hedapena, heldutasuna eta iraungitzea. Ikasturte bakoitzean, enpresaren bizi zikloaren fase bakoitzarekin lotutako ikasgaiak edo moduluak landuko ditugu. **Nola prestatuko zara**

green-tech

trantsizioari aurre egiteko? Ikasturte bakoitzean enpresaren bizi-zikloko etapa bakoitzarekin lotutako moduluak landuko ditugu, trantsizio "berdea" eta "digitala" kontuan hartuta.

myGADE1

Lehenengo mailan, alde batetik, munduko ekonomia ezagutuko duzu, eta bestetik, ulertuko duzu zer den enpresa bat eta bere ingurunea, oinarriko kudeaketa prozesuak zeintzuk diren ikasiko duzu eta zure autoezagutzan sakonduko duzu.

myGADE2


Bigarren mailan, enpresa bat kudeatzen ikasiko duzu, eta baita hainbat funtzioen garrantzia, enpresa optimizatzeak eta arrakasta izateko eta gehiago jakingo duzu lantalde batean duzun rolari buruz.

myGADE3

Hirugarrenik, enpresaren produktuak, zerbitzuak eta prozesuak nola berritu, proiektu handiak nola kudeatu eta nazioarteko negozio-eredu berriei nola ekin jakingo duzu, zure lantaldearen garapena indartzearekin batera.

myGADE4

Laugarren mailan, zure enpresa proiektua burutuko duzu Euskadin edo atzerriko enpresa batean, eta, horri esker, lan merkatuan sartzeko behar dituzun trebetasun profesionalak eta pertsonalak eskuratu eta indartuko dituzu.



Ikaskuntza metodologia honi esker, hainbat sektoretako enpresen benetako erronkei aurre egin ahal izango diezu.

INDUSTRIA

Etorkizuneko industriak, Europako Itun Berdeari eta teknologiei lotuta dituen erronkak ezagutu, 4.0 industria bezalako lehiakortasuna bultzatzeko.



RETAIL

Retaileko egungo erronkak ezagutzea eta horiei heltzea, eta estrategiarik egokienak definitzea.




BANKUAK

Enpresa noiz dibertsifikatu edo kanal digital berrietara noiz ireki jakin, bankuak, online bankuekin egin duen bezala.



E-COMMERCE ETA DIGITALA

Egungo bezeroen leialtasuna, eta eremu digitalean, berriak erakartzeko gaitasun handia eskatzen duten negozioen bezero estrategiak definitu.



HERRI ADMINISTRAZIOA

Eremu publikoan garapen- eta berrikuntza-beharrak identifikatzea, horiei erantzuteko eta prozesuak hobetzeko.



AHOLKULARITZA ETA AUDITORETZA

Hainbat enpresatan aholkularitza- eta ikuskaritza-proiektuak nola egin jakitea, zerbitzuaren kalitatearen ikuspegitik negozioen hazkundera optimizatzeke eta/edo bultzatzeko.



LearnREAL

Eskema honekin, myGADEko ikasketa planaren edukira hurbildu ahal izango zara lau ikasturteetan zehar, osagai ezberdinak kontuan hartuta: campuseko moduluak, esperientzia DUALA enpresan, garapen pertsonala, iraunkortasun- eta digitalizazio-erronkak eta nazioarteko esperientzia.

- **Matematikak eta Estatistika**
- **XXI. mendeko Enpresa**
- **Marketin Estrategikoa**
- **Kontabilitate eta Lege Kudeaketa**
- **Mundua (Mikro eta Makro ekonomia)**
- **Negozioen Datuak eta Analitika**
- **Harremanetarako Trebetasunak**
- **Praktikak enpresan (DUALA)**
- **Outdoor experience**

- **Finantza eta Zerga Kudeaketa**
- **Customer-centric Organization**
- **Operations Management**
- **Pertsonen Kudeaketa eta Talent Analytics**
- **Harremanetarako Trebetasunak**
- **Ikasketa-zerbitzu Proiektua**
- **Praktikak enpresan (DUALA)**
- **Nazioarteko esperientzia: Intercampus Challenge**

- **Eraldaketa Digitalaren Kudeaketa**
- **New Markets & Internationalization**
- **Business Development**
- **Innovation: Product, service, process.**
- **Harremanetarako Trebetasunak**
- **Praktikak enpresan (DUALA)**
- **Nazioarteko esperientzia: International Experience Program Data, Finance, Talent, Internationalization, Digital Marketing**


- **Gradu Amaierako Proiektua enpresan**
- **Nazioarteko egonaldia**
- **Hautazkoak**
- **Praktikak enpresan (DUALA)**
- **Nazioarteko esperientzia: Gradu Amaierako proiektua enpresan (Euskadin edo atzerrian; Erasmus + Europatik kanpoko nazioarteko programak (Amerika, Asia, Ozeania...))**



03

myGADE

Gratu DUALA Enpresen
Administrazio eta Zuzendaritzan



Be FUTURE

Be FUTURE

Be FUTURE

Be FUTURE

Be FUTURE

Garatu zure potentzial guztia, lan merkatuan erakargarria izateko.

myGADE Gratu DUALA Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan

Zure etorkizun profesionalak eta zure enplegarritasunak ere zerikusia dute lan-merkatuak eskatzen dituen soft skillen garapenarekin: taldean lan egiteko gaitasuna, motibazio-maila, erabakiak hartzeko gaitasuna, eraginkortasunez komunikatzea, arazo konplexuak aztertu eta konpontzea, pertsonen arteko trebetasunak, balioak, konpromisoa, erresilientzia-maila eta egoera zailak kudeatzeko gaitasuna, zure sormenaren garapena edo zure pentsamendu kritikoa, besteak beste. Lanpostuetan eskatzen diren soft skills baldintzak ikusi besterik ez dago.

Konpetentzia teknikoak (ezagutzak) eskuratzeaz gain, zure soft skills zeharkako konpetentziak garatzea nahi dugu, zure talentua balioan jartzeko. Horrela, enpresa-prozesuen automatizazioa mehatxatzen duen enplegarritasun-gap-a ordeztan lagunduko duzu. Horretarako, 7 gaitasun hauek garatzen lagunduko dizugu:



% 97ko enplegagarri- tasuna dugu!

myGADEko lau urteek prestakuntza eta esperientzia sendoa eskaintzen dizute kudeaketa edo administrazioa enpresa zuzendaritzan, balio anitzekoa; enpresa batean funtzio desberdinak garatzeko eta sektore askotan lan egiteko gaitasuna ematen dizuna. Alumni myGADEr batzuek zer lan dituzten azalduko dizugu:

**JOKIN
LASPIUR**

CEO Grupo Modube



**LARRAITZ
ZUBERO**

Audit Manager:
Ernst & Young



**ELENE
ALLENDE**

Europako Proiektua
- Familia Harrera
Especializatua
AFE Sareetan



**IGOR
FERNANDEZ**

Product Manager:
Schaeffler Iberia



**IÑIGO PEREZ
DE ARENAZA**

Sales Transformation
Project Lead:
PepsiCo



**ANE
BERGARETXE**

Marketing and
Communication
Manager:
AMPO S. Coop



Honekin guztiarekin... Zer adierazi nahi dizugu?

myGADEko ikaskuntza, hainbat esperientzia eta aurkikuntzen bidez eraikitzen duzu, eta horregatik ezin da "betiko" ikasgeletan egin. Hori izango da hurrengo 4 urteetan biziko duzun bidea. Albert Einsteinek zioen bezala "zure ikaskuntzak zure esperientziak dira, gainerako guztia informazioa besterik ez da".

1.

MODULUAK KLASEAN


EGONALDIA ENPRESAN



2.

MODULUA KLASEAN

EGONALDIA ENPRESAN



3.

MODULUA KLASEAN

EGONALDIA ENPRESAN



4.

ONLINE MODULUAK

EGONALDIA ENPRESAN



Hurrengo urratsak →

Etor zaitez hurrengo ate irekien jardunaldira. Ez zaitu ezertara konprometitzen!

Esaten dizuguna gustatzen bazaizu... Sarbide probetara deituko dizugu!

Laster jasoko duzu zure eskaera ebazpena.

Jarrai iezaguzu: [f](#) [@](#) [🐦](#)

ATE IREKIAK

<https://www.mondragon.edu/eu/unibertsitate-graduak/ate-irekiak>

IZEN EMATEA

www.mondragon.edu/inskripzioak/saioa-hasi

ONARPEN PROZEDURA

<https://www.mondragon.edu/eu/informazioa/onarpenak>

HARREMANA

OÑATI

Ibarra Zelaia 2
20560 OÑATI,
Gipuzkoa
Nagore Lopez
943718009
nlopezp@mondragon.edu

BIDASOA

Plaza Leandro Agirretxe 1
20304 IRUN,
Gipuzkoa
Iraitz Oiartzabal
943639129
ioiartzabal@mondragon.edu

BILBAO AS Fabrik

Olagorta Kalea, 26
48014 Bilbao,
Bizkaia
Maitane Herrera
+34 670 254 555
mherrera@mondragon.edu



**Etorkizun
zirraragarria
duzu zain!**